

# Enpresa ideia definitzeko gida

## ENPRESA IDEIA

### 1.- Beharrak detektatu:

- Asmatutako zerbait hobetu:
  - **Zer hobetu dezakegu?**  
Hainbat gauza hobetu daitezke. Adibidez; neguaren hasieran datorren eguraldi txarrari aurre egiteko tresnaren bat.
  - **Zer eskainiko dugu besteek eskaintzen ez dutena?**  
Ikuspegi berri bat, antzinakoa den tresna bat berritzeko edo hobetzeko aukera gaur egungo beharrei arabera. Ona den produktu bat hobetzeko aukera.
  - **Zer gehitu dezakegu?**  
Oso hobekuntza berritzaile bat eskaini dezakegu. Erraztasunak bakarrik ekarriko dizkie kontsumitzaileei, diseinu hobekuntza batekin eta teknologia berriak erabiliz. Produktuaren behin eta berriro erabiltzeko aukera ematen duen berrikuntza bat.
  - **Nola erakarri kontsumitzaileak?**  
Kontsumitzailea erakartzeko sare sozialetan gure produktua promozionatuko dugu. Hortaz gain, gure taldearen indargune bat aprobetxatuz fisikoki hizketaldiak emango dizkiegu gure produktuan interesatuak egon daitezkeen enpresa desberdinei, honela enpresa hauek gure produktua zabaldu dezakete.

### 2. - Gure ekarpena definitu:

- **Zertan gara onak?**  
Orain dela aste batzuk egindako inkesten ondorioak kontuan hartuz, ikusi dezakegu sozialki indar handia duen talde bat garela. Ondorioz, gure taldeak presentzia fisiko oso handia eduki beharko du, hori baita ondo egiten dakiguna. Hortaz gain, gure gaitasun intelektualak (berrikuntzak sartu, arazoak konpondu...) erabil ditzakegu ere.
- **Zein dira gure interesak?**  
Guri gehien interesatzen zaiguna enpresa bezala haztea da. Gure ideiak aurrera eramateko gai izatea eta akats bakoitzetik ikastea eta

hurrengoan akats hori nola saihestu jakitea. Etengabe berrikuntzak sartu nahi ditugu gure produktuan eta etengabe berritzen egotea. Honekin guztiarekin enpresak arrakasta edukitzeko aukera gehiago edukiko ditugu.

- **Zer ekarpen egin dezakegu?**

Hainbat berrikuntza sar ditzakegu gaur egungo gizartean; ikuspegi gaztea, freskoa, berria dugu askok ikus ezin ditzaketen arazoak ikus ditzakegu.

### 3. - BRAINSTORMING

- 1. Fasea

- Edozein ideia onartzen da
- Besteen ideiak ezin dira kritikatu
- Bururatutako edozer bota dezakegu
- Ideia guztiak (zentsugabeenak barne) idatziz jaso
  - Aterki berritzaileak.
  - Buelta eman dezaketenen bankuak
  - Aterki flotagarriak
  - Imana duten blokak
  - Zirak txapelean aurikularrekin

- 2. Fasea

- Eztabaidatu ideia jasatik apuntatutako ideiak
- Baloratu ideiak banaka
  - Aterki berritzaileak: Ideia interesgarria iruditzen zaigu. Aterki berritzaileak sortuko genituzke diseinu berri bat eskaintzen eta beste berrikuntza batzuk sartuz. Adibidez, silikonazko heldulekuak. Gainera ideia hau burutzea ez zaigu hain zaila iruditzen
  - Buelta eman dezaketenen bankuak: Ideia oso ona iruditzen zaigu baina ez oso erraza burutzeko. Hainbat faktore kontuan hartu beharko ziren eta ez dugu esperientziarik. Baina, hala ere, eskaera edukiko zuen produktua dela iruditzen zaigu. Bestalde, saltzeko ez zen oso erraza izango, izan ere banku hauen erosleak enpresak eta

herrietako udalak izango ziren. Gu bezalako enpresa txikiak zailtasunak izango lituzke hauengana iristeko.

- Aterki flotagarriak: Burutzeko oso zaila den ideia iruditzen zaigu, ia ia ezinezkoa. Gainera ez da batere praktikoa izango haize handiak eta ekaitzak egingo dituenen.
- Zira, txapelean aurikularrekin: Ideia hau batez ere gazteentzako izango zen interesgarria. Ez digu oso ideia interesgarria iruditzen.
- Definitu eta garatu ideia interesgarrienak
  - Gure ustez ideia interesgarrienak aterki berritzaileak eta buelta ematen dituzten bankuak dira.
    - Aterki berritzaileak: Aterkiaren ideia abiapuntutzat hartuz, guk merkatuari aterki berritzaileak eskainiko genituzke. Hasteko kolore eta diseinu berritzaileenekin. Bestalde, beti ikusten ditugun formak alde batera utziz, beste forma batzuk gehituko genituzke, baina, bere efizientziari eutsiz, hau da, nahiz eta forma ezberdina eduki ez gara bustiko. Horrez gain, helduleku oso erosoak ere eskainiko ditugu, silikonazkoak. Eskuaren formara ondo egokitzen direnak.
    - Buelta ematen duten bankuak: Banku hauek behar bat direla iruditzen zaigu. Izan ere, euria egiten duenean bankuak bustita gelditzen dira eta eseri nahi badugu, ezin izaten dugu. Horregatik buelta ematen zaien momentuan ahalko genuke eseri. Horrez gain, nahiz eta buelta ematen duten erosoak izaten jarraituko dute izan ere bizkarra jartzeko arrimua izango zuten, baina buelta emateko garaian tolestuz, bildu egingo lirateke. Horregatik ideia interesgarria iruditzen zaigu. Erosleak udala edo enpresak izango lirateke.
- Azken proiektuan bihur daitezkeen 3-4 ideia aukeratu
  - Gure ustez gure azken proiektuan bihur daitezkeen ideiak bi dira; aterki berritzaileak eta buelta ematen duten bankuak.
- 3. Fasea
  - Aukeratutako ideietatik eztabaidatu guztiak banaka
  - Arrazoituaz joan baztertzen interes gutxieneakoak
  - Ideia definitibo bat aukeratu
    - Aterki berritzailea: Ez dugu baztertuko, ideia interesgarria eta egiterraza iruditzen zaigulako.

- Buelta eman dezaketen bankuak: Hauek ere ez ditugu baztertuko, ideia egiterraza ez den arren, eskaera handia izango lukeelako.
- Aterki flotagarriak: Baztertu egingo dugu, gaur egun eskura dugun teknologiarekin oraindik ere burutzeko oso zaila izan daitekeelako.
- Imana duten blokak: Ideia hau baztertu egingo dugu, izan ere ez da oso berritzailea, eta ez zen nabarmenduko egungo merkatuan.
- Zira, txapelean aurikularrekin: Ideia hau ere baztertu egingo dugu, gazteen artean eskaera handia izango zuen arren adin gehiagoko pertsonen interesa ez zuelako piztuko.

Azkenean aterki berritzailea aukeratu dugu, izan ere, bankuak baino ideia erabilgarriagoa izango da, errazago salduko dugu eta produkzio altuagoa lortuko dugu aterkiekin bankuekin baino (aterkiak errazago hausten dira, baina bankuak asko gehiago iraun dezakete)

#### 4. - Enpresa ideia:

- Ideia enpresa bihurtu
  - **Ideia hori enpresa ideia bat bezala formulatu:**  
Gure ideia aurrera eramateko ez ditugun baliabideak lortu beharko ditugu. Gure lau pertsonako taldeak ez du esperientziarik ez eta materialik gure ideia aurrera eramateko, beraz materiala lortzeko eta aterkiak bira emateko mekanismoa egiteko beste enpresa batzuk beharko ditugu. Aterkiaren diseinuak egiteko marrazkilari edo diseinu artistikoan espezializatutako enpresa bat beharko dugu.
  - **Ideia hori bideragarria den enpresa proiektu baterako egokitu:**  
Aurreko puntuan aipatu bezala gure ideia aurrera eramateko enpresa desberdinekin harremanetan jarri beharko gara eta gure produktua prest egotean marketin ona beharrezkoa izango da gure produktua ezagutarazteko. Prozesu hau bukatzean gure

ideia martxan jarriko da eta hasiera batean bideragarria dirudien enpresa ideia benetan bideragarria den ala ez ikusiko dugu.

**Zihara Etxeberria, Kimetz Toledo, Iker Mitxelena eta Eneritz Aduriz**